


Protokoloa

Protokoloa

2004



Laneko istripu larrietan
eta heriotza-istripuetan
sindikatu bezala esku
hartzeko protokoloa

LAB
Formazioa


EUSKO JAURLARITZA
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

lagundu du prestakuntza sindikalerako
txosten hau finantziatzen.

2004



Laneko istripu larrietan
eta heriotza-istripuetan
sindikatu bezala esku
hartzeko protokoloa

Aurkibidea

Aurkezpena	7
Sarrera	9
I.- Lehendabiziko esku-hartze fasea	11
II.- Bigarren esku-hartze fasea	17
Eranskinak	25

Protokoloa

Protokoloa

6



Aurkezpena

Lantokian laneko istripu bat gertatzen denean -batez ere haren ondorioak larriak direnean-, tentsio-egoera bat sortzen da, lehenengo uneetan ematen dugun erantzuna oztopa dezakeena. Protokolo honek gida praktikoa bat izan nahi du LABeko ordezkariarentzat; bertan, bai lantokiaren barnean eta bai lantokitik kanpo jarduteko ereduak jasotzen dira modu ordenatuan, gure esku-hartzeak lehen unetik duen garrantzia kontuan hartuta.

Badakigu Laneko Osasunaren alorrean prebentzioa dela funtsezkoena. Zoritxarrez, baina, enpresa askoren diruzalatasun aseeginaren eraginez, langileen Segurtasunak eta Osasunak azken postuan zokoratuta jarraitzen dute.

Gure erantzuna eta mobilizazio sindikala ez dira laneko istripuetara soilik iritsi behar; izan ere, beste alor batzuk ere hartu behar ditu kontuan, hala nola lanbide-gaixotasunak, lanarekin zerikusia duten gaixotasunak, mutualitateen praktika okerrak, enpresetako prebentzioan dagoen parte-hartze eskasa, eta abar.

Laneko istripuek eta gaixotasunek modu ezin gordinagoan erakusten dute laneko arriskuen prebentzioaren porrota, enpresek prebentzio hori derrigor egin behar duten arren. Beraz, gure erantzun sindikalak istripua sorrerari duden arrazoiak azaleratzeko ere balio behar du; gero, arrazoiak identifikatu direnean, istripuak ez errepikatzeko hartu behar diren neurri prebentiboak definitu eta abiatu behar dira.

Dena dela, bada prebentzioaren eremuan ahaztu behar ez dugun gauza bat, alegia: generoaren ikuspuntutik itxura neutrala izan arren, praktika prebentiboak erreferente maskulinoa duela bere oinarrian, edo generoa kontuan hartu beharreko aldagaia dela ukatzen duela. Kontua da praktika prebentibo eraginkorrek generoa baloratu eta kontuan hartu behar duela laneko istripuen alorrean, eta, beraz, kontuan hartu beharrekoa ez da emakumeen espezifikotasun biologikoa soilik, baizik eta baita produkzio-lanaren eta erreproduktzio-lanaren gaur egungo banaketa eta lanaldi bikoitzaren ondorioak ere.

Gainera, ideologikoki aurre egin behar diegu istripuen arrazoiak langileei leporatzeko ahaleginei; aspaldi honetan, gainera, epaile batzuen ebazpen atzerakoiak horren alde azaldu dira.

Haien asmoa laneko istripuen eta lanbide-gaixotasunen funtseko arrazoiak zein diren ahantzaraztea edo ezkutetzea da, hau da, haien eragile nagusia patronala dela, zeren bera baita lan-harremanak gero eta prekarioago bihurtzen dituen, aldi baterako kontratazioa nahi beste hedatuz eta haien aberasteko nahia gure osasunaren gainetik jarritz. Lanpostuetan osasuna eta -batzuetan-bizia bera galtzea ez da arrisku jakin batzuek soilik sortutako arazo bat, baizik eta lan-harremanen alorrean ezarrita dagoen ereduaren ondorioa, hots, ahalik eta etekin handiena ahalik eta arinen

Protokoloa

Protokoloa

lortzera zuzendutako eredu horren ondorioa. Horregatik, LABek patronalari egiten dion exijentziak garbia eta etengabea izan behar du, zeren bera baita osasunak gure lanpostuetan pairatzen dituen kalteen erantzulea.

Halaber, beharrezkoa da Administrazio Publikoak interpelatzea, zeren patronalaren mezu ideologikoak bereganatzen baitituzte maiz, osasuna bermatzeko betebeharra formalitate huts bihurtuz: mendetasun ideologikoz jokatzaren dute, gaitz sozial horren aurrean pasibotasun konplizez arituz. Haien utzikeria salatzeaz batera alternatiba konprekuak proposatu behar ditugu, lehenatasun ekonomikoaren zama gainetik kendu eta kalteak saihest ditzakeen eredu prebentibo bat sortzeko.

Horrenbestez, **laneko istripu larrietan eta heriotza-istripuetan sindikatu bezala esku hartzeko protokolo** honen xedea LABek enpresetan dituen ordezkariet modu praktikoa laguntzea da; beraren bitartez, gure esku-hartzea modu eraginkorrean aktibatu nahi dugu, bai hasierako erantzuna ematerakoan eta bai ikerketa-prozesuan eta laneko istripu larria edo oso larria berriz gertatzeko arriskua ezabatzeraz zuzendutako neurriak hartzeko prozesuan ere.

Gainera, beste helburu bat da testu hau zuen laguntzarekin aberastea, lantokietako eguneroko esperientziatik abiatuta, Laneko Osasun Idazkaritzaren bitartez. Era horretan, gure esku-hartzea hobe dezakeen kolektibizazio-prozesuarekin jarraitu ahal izango dugu eta gure azken helburura hurbilduko gara, hau da, lanak Osasuna galtzera eramane ez dezala lortzera.

8

Ibon Zubiela

LAB Sindikatuaren Laneko Osasun Idazkaritzako Idazkari nazionala



Sarrera

Gure esku-hartzeak bi fase ditu:

Lehenengo fasea: enpresatik gauzatu behar da, xede hauekin:

- Biktimak atenditzea.
- Istripuaren ikerketan gerta litezkeen iruzurrak (frogak aldatuz edo desitxuratuz) eragozteak.
- Istripua sortarazi zuten baldintzak eta gertaerak errepikatuko ez direla bermatzea.
- Eta langileek gure lanpostuetan Osasuna –eta, gehiegitan, bizia bera- galtzen dugula jendaurrean salatzea.

Bigarren fasea:

Enpresatik kanpo:

- Lehenengo fasean hasi ditugun ekintza administratiboen jarraipena egitea, eta, horren emaitzen arabera, arau-hausteak auzitegietara eramateko aukera baloratzea.

Enpresaren barnean:

- Istripuaren benetako arrazoiak zein diren zehaztea, enpresatik sinestarazi nahi digutena bazter-tuz. Beraz, sail sindikalak bere ikerketa autonomoa gauzatu behar du eta bere emaitzak beste era-kunde batzuek egindako ikerketen emaitzekin alderatu, gero geure konklusioak ateratzeko, geure lan-plangintza prestatzeko eta haren jarraipena egiteko.

Protokoloa

Protokoloa

10



I. Lehenengo fasea

1.- Kaltetutako pertsonen laguntzea

Lehendabiziko urratsa istripuan kaltetutako pertsona guztiei laguntzea da; laguntza horri, gainera, prozesu osoan eutsi behar diogu.

Kaltetutako pertsonen hitz egiten dugunean, zentzu zabalean egin behar dugu. Hau da, kaltetutakoak ez dira istripua zuzenean pairatu duten pertsonak eta haien senideak soilik, baizik eta baita istripuan esku hartu duten edo haren lekukoak izan diren lankideak ere.

Laneko istripuaren ostean hasten den prozesu luzean zehar –batez ere istripuak ondorioak uzten baditu pertsonengan (heriotza, aldi baterako ezintasunak edo ezintasun iraunkorrak)-, kaltetutako pertsonen erreferentia eta sostengua izan behar dugu.

Kaltetutako pertsonen eskaini beharreko arreta atentzio sanitarioarekin hasten da ia beti, eta atentzio hori ahalik eta arinen eman behar da, ahalik eta modu eraginkorrean. Beraz, hauxe lortu behar dugu: **biktimak zentro sanitario batera eramatea, baldintza onetan eta ahalik eta arinen.**

11

Gai hau emergentzia-planetan hartu behar da kontuan “a priori”. Alde horretatik, plan hori eraginkorra dela bermatu behar dugu, hau da, pertsonal nahikoa eta ondo prestatua duela emergentzia horiek bideratzeko.

Hori dela-eta, bada gehiegitan gertatzen den zerbait, hots, istripu bat pairatu duten pertsonak baldintza txarretan eramaten dituztela Mutuen mende dauden klinika edo osasun-zentroetara, nahiz eta zentro horiek askotan ez duten kasu larriak atenditzeko behar den pertsonal sanitario egokirik. Gainera, zentro horiek ez diete jakinarazten egoera ez Auzitegiei ez Administrazio Publikoei. Horren eraginez, istripua gertatu dela ezkututzen zaie Laneko Ikuskaritzari eta Nafarroako Laneko Osasun Institutuari (INSL) edo OSALANi (EAEn), edo haren jakinarazpena atzeratzen da.

Horregatik, gure planteamendua hauxe da: **gure ustez ondorio larriak izan ditzaketen istripuen biktimak 112 zerbitzuaren bidez ebakatu behar dira, hurbilen dagoen zentro sanitario publikora eramateko –lehen unean-.**

Beste zeregin bat da enpresak istripuari zein larritasun maila egozten dion ikustea (horren jarraipena egitea).

Istripu larrien kasuan, gainera, lanuzte baten bidez erantzuteko aukera baloratu behar da, lanuzte horren iraupena ere baloratuz –jarraian azalduko dugun bezala-.

Protokoloa

Protokoloa

2.- Honako hau eragozte:

a) Kalte gehiago sortzea:

Arriskuen Ebaluazioan, Prebentzioaren Plangintzan eta -batez ere- Emergentzien Planean egoera kritikoei ere heldu behar zaie, istripua gertatu ondoren beraren ondorioak larriagoak izan ez daitezzen, beharrezkoak diren neurriak hartzen ez direlako.

Egoera kritiko horietan hauxe aurreikusi eta lortu behar da: **biktimei laguntzeko lanak ez ditzala arriskuan jarri salbamenduan aritzen diren pertsonak.**

Adibide moduan, hauxe planteatu daitezke: **makinen energia etetea, likidoen edo gasen ihesak gelditzea, suteak kontrolatzea**, eta abar.

Halaber, oso garrantzitsua da istripuarekin zerikusia duen lan-prozesua edo lan-taldea lehenbailehen gelditzea, harik eta prozesu edo ekipo hori baldintza seguruetan dagoela eta arriskurik sortuko ez duela segurtatzen den arte; horretaz arduratu behar diren teknikariak ez dira enpresaren mende egon behar.

12

b) Gabeziak (arauak ez betetzearen ondorioz sortutako gabeziak) eta prebentzioaren akatsak itxuraldatzeko edo zuzentzeko ahaleginak. Ahalegin horien xedea gabeziak eta akatsak ezkutatzea da, Teknikariak edo Lan-ikuskaritza haietaz konturatu ez daitezzen.

Zorigaitzez, barandarik ez zegoen lekuan barandak jartzea, zuloak estaltzea, sareak ipintzea, biktimaren ondoan segurtasun-arnes bat kokatzea edo istripua gertatzeko arriskua seinalatzea sarriegitan gertatzen diren praktikak dira. Batzuetan, gainera, praktika operatibo perfektuak agertzen dira "mirariz", Zuzendaritza errugabetzeko eta istripuaren errua "biktima zuhurtziagabeei" leporatzeko.

Ezinbestekoa da praktika horiek eragozte eta **ahalik eta lekuko gehien lortzea**. Zenbaitetan, poliziaren atalen batek istripuari buruzko txosten bat egiten du eta zaintzako epaitegira bidaltzen du, baina hori heriotza-istripu batzuen kasuan soilik gertatzen da.

Horrez gain, jarraian azalduko dugun bezala, oso garrantzitsua da **NAFARROAKO LANEKO OSASUN INSTITUTUKO, OSALANEKO eta Laneko Ikuskaritzako pertsonal teknikoa gertaeren lekura lehenbailehen iristea**. Funtsezkoa da hori lortzea, nahiz eta erakunde horiek ez dituzten eskura Laneko Istripuetan urgentziaz aritzeko behar diren mekanismoak.

3.- Kontratetako/azpikontratetako/able-etako pertsonala kontaktatzea eta sostengua ematea

Istripuan kaltetutako pertsonak kontrata/azpikontrata/ABLE bateko langileak badira, haien orde-



kariak aurkitu behar ditugu, edota -ordezkaririk ez badute- haien lankideak, senideak eta lagunak; horrelakoetan, are beharrezkoagoa da pertsona horiei laguntza ematea haien ekintzetan.

Zorigaitzez, ekoizpenaren deszentralizazioa edo kate moduko azpikontratazioa gero eta hedatua dago. Horren eraginez, enpresetan lanean ari direnen artean gero eta gehiago dira horrelako enpresetako langile direnak; enpresa horietako gehienak txikiak dira, eta haien langileak lan-baldintza okerragoetan aritzen dira –ekoizpen-jardueren ustezko koordinazio ospetsu hori gorabehera-, eta, beraz, istripu gehien pairatzen dituzten kolektiboak dira.

Ezaguna da kolektibo horiek ez dutela ordezkari-tza sindikalik, edota ordezkari-tza horrek indarririk ez duela edo urrun dagoela. Horregatik, langile horiei une horietan laguntzeko eta babesteko rola hartu behar dugu gure gain.

Azpimarratzekoa da kolektibo babesgabeenak hauexek direla: mikroenpresetan lan egiten duten pertsonak, benetako edo iruzurrezko autonomoak, ABLEen bidez kontratatutakoak eta etorkinak. Haiak dira, beraz, horrelako egoeratan gure sostengua gehien behar dutenak.

4.- Gertatutakoa dagokien instituzioei jakinaraztea: lan-agintaritza, nafarroako laneko osasun institutua, osalan eta lan-ikuskaritza

13

Erakunde horiei egin beharreko jakinarazpena ahalik eta arinen egin behar da. Izan ere, jakinarazpena zenbat eta arinago egin, orduan eta arinago eska diezaiekegu istripuaren lekura etortzeko, bai gertatutakoaren ikerketa hasteko eta bai lanari berriz ekin aurretik edo istripuarekin nahastutako lan-ekipoa berriz erabili aurretik hartu beharreko neurriak definitzeko.

Istripu oso larriren bat edo heriotza-istripuren bat geratuz gero, polizia ere abisatu beharko genuke. Dena dela, emergentzien telefono-zenbakira (112) deitzean haiek dira abisua jasotzen duten lehenak eta INSI-OSALANi deitzen diotenak.

Hortaz, gure irizpidea hau da: **istripua gertatu den enpresatik 112 zenbakira deitzea; gero, sindikatuaren estrukturak egiaztatuko du Lan-agintaritzak, INSL-OSALANek eta Lan-ikuskaritzak gertatutakoaren berri badutela eta jardun egingo dutela.**

5.- Gertatutakoa sindikatuari jakinaraztea, eskualdean

Jakinazpena lehenbailehen egin behar da, emandako lehen urratsen berri emanez. Era horretan, sindikatuak lagundu ahal izango dizue, hala enpresaren barnean nola kanpoan.

Batzuetan, laneko istripuek sortzen dituzten muturreko egoeren eraginez, gertatutakoa ez zaie jaki-

Protokoloa

Protokoloa

narazten sindikatuko arduradunei, nahiz eta arduradun horiek une horietan lagundu ahal dizueten eta egin beharrekoa koordinatu.

Beraz, beharrezkoa da sektoreko, lurraldeko eta Laneko Osasun Idazkaritzako arduradunekin kontaktuan egotea. Garbi dago, jakina, ez dela beharrezkoa hiru estruktura horiekin kontaktatzea; izan ere, horietako edozeinek abiatu beharko du eman beharreko erantzuna eta zereginak banatu. Nolanahi ere, gomendatzen duguna da LABen eskualdeko egoitzarekin kontaktatzea, gertaeren lekutik hurbilago dagoelako.

Halaber, Laneko Osasun Idazkaritza istripuaren datuak biltzen saiatuko da, Sindikatuaren prentsa-bulegora eramateko; gainera, ahal den neurrian, haren arduradunak deitzen diren kontzentrazioetan izango dira, sektoreko edo lurraldeko arduradunarekin batera eledun gisa arituz.

Horrez gain, Laneko Osasun Idazkaritza osatzen duten pertsonen informazioa eman behar diete istripuak ukitzen duen Sail Sindikalari, mobilizazioen ostean eman beharreko urratsak zein diren jakin dezan.

6.- Enpresako ordezkariak sindikala biltzea

14

Hau da, enpresa-batzordea edo ordezkariak biltzea, eman beharreko urratsen inguruan erabakitzeko.

Istripuaren larritasun maila zein den kontuan hartua –hori ez da kalteen arabera soilik baloratu behar, baizik eta gerta zitekeena ere kontuan hartuta-, **oso garrantzitsua da ordezkariak sindikalak berehalako bilera bat eskatzea enpresako Zuzendaritzarekin.**

Bilera horretan, **ukitutako pertsonen laguntzeko neurriak hartu beharko dira, kalte gehiago eragoztera zuzendutako neurriak hartzeaz** eta lan-ekipoak edo ekoizpen-prozesuak geldiarazteaz batera, segurtasuna bermatuta dagoela frogatu arte.

Zuzendaritzak **istripuari buruz duen informazioa exijitu eta jaso behar dugu**, baita istripua ikeritzeko hasiko den prozesuari buruzko informazioa ere.

Gure aldetik, istripu larrien edo heriotza-istripuen kasuan, **LANUZTERAKO DEIA** jakinaraziko diogu Zuzendaritzari, baina haren egokitasuna eztabaidatu gabe; izan ere, gero azalduko dugunez, dei hori egitea erabaki sindikal bat da.

7.- Mobilizazioak

LAB, ELA, ESK eta STEE-EILAS sindikatuok osatzen dugun euskal gehiengo sindikalak elkarrenga-



nako exijentzia hitzarmen bat du. Hitzarmen horren edukia hauxe da, funtsean:

- Istripu larriak eta heriotza-istripuak publikoki salatzea.
- **24 ORDUKO LANUZTEA egitea heriotza-istripua izan duten enpresetan.** Biktima kontrata/azpi-kontrata/ABLE bateko langilea izanez gero, lanuztea enpresa horietara ere eraman behar dugu. Istripu larrien kasuan ere, lanuzte bat egiteko aukera eta haren iraupena baloratu behar dira.
- **KONTZENTRAZIOA, heriotza-istripua gertatu den lekuan edo eskualdeko leku esanguratsu batean.**

Hitzarmen hori enpresetan bete behar dugu, dela euskal gehiengo sindikala osatzen dugun sindikatuen bitartez, dela langileen ordezkaritza-organo sindikalaren bitartez, zeren eta, hitzarmena sinatu ez badute ere, CCOO, UGT eta USO sindikatuak ere 24 orduko lanuztearen alde omen daude, heriotza-istripuen kasuan.

Dena dela, **sindikatuaren arteko Hitzarmen horrek gutxieneko muga soilik jarri du**, eta, beraz, eremu edo eskualderen batean (batez ere lan istripuen gaitz hori bereziki pairatu duen eremu edo eskualde bat izanez gero) beste mobilizazio batzuk egin ahal badira, edo hitzarmen zabalago bat lortu ahal bada (lanuztea hedatzea eta/edo herrian manifestazioa egitea, eta abar.), bertan ere inplikatuko gara.

Protokoloa

Protokoloa

16



II.-Bigarren fasea

Kanpo ekintzak

Ekintza hauen helburua gai honekin zerikusia duten Administrazio Publikoak interpelatzea da: alde batetik, istripua sortu duten arrazoiak argitu ditzaten; bestetik, istripuen erantzukizuna determina dezaten, hau da, lana antolatzeko ardura izan arren interes ekonomikoa lehenetsi eta osasuna lanpostuetan modu eraginkorrean babesteko betebeharrak legalak bete ez dituzten horien erantzukizuna determina dezaten.

Gure esperientziagatik badakigu, ondo jakin ere, Administrazio Publikoek ez dutela behar bezain arin jokatzeko, eta, halaber, laneko istripuak errepika ez daitezkeen hartu behar diren neurri prebentiboen definizioa atzeratzen dutela, zigorren eta gizarte-segurantzaren eremuko erantzukizunen zehaztapena atzeratzeaz batera.

Horregatik, behartuta egongo gara prozesu horien **JARRAIPEN IRAUNKORRA** egitera, eta, gainera, presentzia **IRMOA** izan beharko dugu gai horietaz arduratzen direnen aurrean.

17

1.- Bide administratiboa hastea

Larritzat jotzen ditugun istripuen kasuan –lehen esan dugunez, istripu horiek ez dira ondorio larriak izan dituztenak bakarrik, baizik eta baita horrelako ondorioak izan zitzaketenak ere-, esku-hartze administratiboko prozesua hasi beharko dugu, aginpidea duen erakundean idazki bat aurkeztuz.

Hego Euskal Herriari dagokionez, gaur egun baditugu bide administratibo hori hastea ahalbidetzen duten zenbait erakunde. Hala, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Lan-agintaritzak (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkarriak) onartzen ditu laneko istripuei buruzko txostenak egiteko eskakizunak. Nafarroako Gobernuaren Lan-agintaritzak, berriz, Lan-ikuskaritzaren esku uzten du zeregin hori, eta, beraz, erakunde horretara jo beharko dugu.

EAEn: Idazkia probintzia bakoitzeko **JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO ORDEZKARITZAN** aurkeztu beharko da, beronek txostenak eska ditzan: OSALANi edo aginpidea duen beste erakunde teknikoren bati eta LAN-IKUSKARITZARI.

Nafarroan: Idazkia **LAN-IKUSKARITZAN** aurkeztu behar da, haren txosten propioa, NAFARROAKO LANEKO OSASUN INSTITUTUarena edo aginpidea duen beste erakunde teknikoren batena eskatuz.

Aginpidea duten beste erakunde tekniko batzuen esku-hartzea beharrezkoa izan litekeela esateko arrazoiak hauxe da: normalean ikerketa teknikoak Nafarroako Laneko Osasun Institutuak (INSL)

Protokoloa

Protokoloa

edo OSALANek gauzatzen badute ere, batzuetan beharrezkoa da beste sail batzuen esku-hartzea, hala nola Industria sailarena, gai hauetan aginpidea dutelako: galdarak, igogailuak, harrobiak, erradiazio ionizatzaileko ekipo batzuk, eta abar. Lehergaien kasuan, berriz, Estatua da aginpidea duen bakarra, Industria Ministerioak Estatuko Gobernuaren Ordezkaritzetan lanean dituen funtzionario tekniko batzuen bitartez.

2.- Gizarte segurantzaren prestazioak errekargatzea

Lehen adierazitako eskakizunen aurrean, Lan-ikuskaritzak zera baloratu behar du bere txostenean: ea laneko istripuaren eta haren eraginez gertatu diren lesio jatorria hauetako bat den: *“makinak, aparatuak edo arauzko prebentzio-tresnarik ez duten instalazioak edo lantokiak, edota tresna horiek erabileratik kanpo edo baldintza txarretan egotea, edo laneko segurtasun- eta higiene-neurri orokorrak edo zehatzak ez betetzea, edota funtsezko osasun-baldintzak bete ez izana edo pertsonala lanpostu bakoitzarentzat egokituta ez egotea, lanpostuaren ezaugarriak eta langile bakoitzaren adina, sexua eta gainerako baldintzak kontuan hartuta”*.

18

Lan-ikuskaritzak egiaztatu baldin badu enpresak bete gabe utzi duela segurtasunaren alorreko betebeharren bat, eta hori lotuta dagoela (kausa-efektua erlazioa) gertatutako istripuarekin, orduan prestazio ekonomiko guztien errekargua proposatu beharko du; prestazio horiek, arau-haustearen larritasun mailaren arabera, %30 eta %50 bitartean igoko dira. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 123. artikuluan jasotzen den bezala (1/1994ko Legearen testu bateratua).

Hala eta guztiz ere, Ikuskaritzak ez badu hasten prozesu hori geuk hasiko dugu, Segurtasunaren eta Higienearen eremuko neurri orokorrak edo partikularrak bete ez direla frogatzen dutela datuak ditugunean.

Prestazioen errekargua enpresaren kontura da, zuzenean, zeren erantzukizun hori ezin baita aseguratatu. Errekargua istripuak eragindako kalteetatik ondorioztatu diren prestazio guztiei aplikatuko zaie: Aldi baterako ezintasuna, ezintasuna eta heriotzatik ondoriozta daitezkeenak (alarguntza-pentsioa, umezurtz-pentsioa, senideen aldekoa...).

3.- Auzitegiara jotzeko aukera baloratzea

INSL/OSALANek edo aginpidea duen beste erakunde teknikoren batek egindako txostenaren datuak, Lan-ikuskaritzarenak eta geure informazio propioak kontuan hartuz, auzitegiara jotzeko aukera baloratu behar dugu.

Garbi dago, jakina, auzi-bidea hasteko erabakia hartzeko ezinbestekoa dela hori ikuspuntu tekniko, juridiko eta sindikaletik aztertzea, biktima bera edo senideak (biktima hiltzen denean) kontuan hartuta.



Zenbaitetan, batez ere poliziak esku hartzen baldin badu, istripuaren txostena ofizioz eramaten da zaintzako Epaitegira, eta horrek prozedura hasten du. Horrelakoetan, komenigarria izaten da Epaitegian azaltzea, istripuari buruz bertan egingo den ikerketa ezagutu ahal izateko; horrelakoetan, geuk ere komenigarritzat jotzen ditugun frogak proposatuko ditugu.

Gaur egun, kontua da ofizioz (gutxi izaten dira) hasten diren prozesuak eta alderdi baten eskariz jurisdikzio penalean hasten direnak epaiketara iritsi aurretik artxibatzen direla. **Gaur egun, bai fiskaltzak eta bai epaileek uste dute bide horiek OHIZ KANPOKO egoeretan soilik ireki behar direla, eta Laneko Arriskuen Prebentziorako araudian egindako arau-haustea LARRITZAT edo OSO LARRITZAT jotzen direnean.**

Gaia gehiago sakondu gabe, azpimarratu behar da bide penala hasteak bide administratiboa geldiarazten duela; horregatik, gure ustez oso garrantzitsua da lehendabizi bide administratiboa irekitzea, arin funtziona dezala saiatur.

Kode Penalak bere 316. artikuluan definitzen den arrisku izeneko delitua tipifikatzen du: *“Laneko arriskuen prebentziorako arauak hautsiz, langileek euren jardura segurtasun- eta higiene-neurri egokiez gauzatzeko behar dituzten bitartekoak eskaintzen ez dituzten jokabideak, langileen bizia, osasuna eta segurtasun fisikoa arriskuan jarriz, 6 hilabete eta 3 urte bitarteko espetxe-aldiez zigortuko dira, eta 6 eta 12 hilabete bitarteko isunez”*.

Epaileek eta fiskaltzak delitu berri horretaz hitz egin eta idatzi dute 1995etik aurrera; hala eta guztiz ere, ezer gutxi dakigu haren erabilera praktikoa.

19

Barne ekintzak

1.- Istripuaren ikerketa autonomoa, sail sindikalean

Hasieran esan dugun bezala, ez dugu Prebentzio-ordezkarria bakarrik utzi behar istripua eragin duten arrazoiaren ikerketan. Lan horretan LABen sail sindikalak ere parte hartu behar du, sindikatuaren Laneko Osasun Idazkaritzaren laguntzarekin.

Egia da istripuen ikerketa konplikatu izaten dela, zeren sarritan ez baitugu datu eta lekuko nahikorik edo behar den ezagutza teknikorik; hala eta guztiz ere, **ezinbestekoa da istripua eragin duten arrazoiak zein izan diren beti planteatzea**. Eta hori modu bereiztu eta autonomoan egin behar dugu, enpresaren planteamendu interesatuetatik eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren personal teknikoaren itxurazko planteamendu neutroetatik urrunduta.

Protokoloa

Protokoloa

Gorabeheren ikerketa –teorikoki istripurik sortzen ez duten gertaerak- eskola ona da ikertzeko modua ikasteko.

Dena dela, ikerketa-teknika aplikatzerakoan, datuak biltzerakoan eta aztertzerakoan, **gure ikuspegi sindikala oso garrantzitsua da, batez ere aztertzeko zergatik pertsonen –biktimenek, oro har-egin duten operazio hori modu horretan.**

Orobat, lan-prozesuen inguruko ezagutza aprobetxatu behar dugu, bai zuzenean eta bai gure lan-kideen bitartez.

Legaren ikuspuntutik, enpresa behartuta dago laneko istripuen arrazoiak ikertzeko eta bere konklusioak ordezkari sindikalari jakinarazteko.

Enpresak bere baliabide propioen bidez egingo du ikerketa hori, eta/edo Mutuaren bidez edo Kanpoko Prebentzio Zerbitzuaz (SPA) arduratzeko kontratatatu duen enpresaren bidez.

Alde horretatik, enpleguari buruzko ardurak dituzten Administrazio Publikoek gauzatzen dituzten ikerketak istripu larri eta heriotza-istripuei buruzkoa dira soilik. Lehen esan dugunez, heriotza-istripu batzuetan poliziak txostenak egiten ditu eta Zaintza Epaitegira bidaltzen ditu.

20

Istrituak ondorio larriak dakartzanean, enpresako Zuzendaritzak parte-hartze sindikala planteatu ohi du, eta geuk parte-hartze hori onartuko dugu. Dena dela, oso garbi izan behar dugu zein diren gure xedeak, baita enpresaren jardueren partzialtasuna gogoan izan ere, zeren haren helburu nagusia beraren erantzukizuna saihestea izaten baita.

Kontu handiz jokatu behar dugu, ikerketaren baitan izan ditzakegun adostasun-puntuak erabili ez daitezen enpresa errugabetzeko, lana antolatzeko arduraduna den aldetik; orobat, ez dugu azterketa sinplistik onartu behar, hau da, berehalako arrazoiak soilik aztertu eta –azkenean- errua biktimari leporatzen dizkieten azterketak.

Presak ez gaitu eraman behar sakontasun gutxiko ikerketak egitera; gainera, presa horrek ez du helburu bakartzat izan behar enpresaren eta sindikatuen sinadura bateratua lortzea.

Horregatik guztiagatik, oso beharrezkoa da sindikatuaren barnean esperientzia duten pertsonen parte-hartzea -edo, gutxienez, etengabe kontsultatzea-, behar den aholkularitza jasotzeko.

2.- Enpresak, mutuak (edo kanpoko prebentzio zerbitzuak) eta administrazio publikoek egindako ikerketaren emaitzak alderatzea

Laneko istripuei buruz pertsonal teknikoak egiten dituen ikerketak ez ditugu ezinbestean



egiatzat hartu behar –a priori-; aitzitik, haien emaitzak geure ikerketa propioaren emaitzekin alderatu behar ditugu.

Lehenago aipatu dugun bezala, ez dugu ahaztu behar datu teknikoez gain (gainera, zoritxarrez, sarritan inork ez du datu nahikorik izaten istripua guztiz berritzeko) oso garrantzitsua dela lan-prozesuen benetako funtzionamenduaz geuk dugun ezagutza, baita agindu teorikoen eta lana gauzatzeko benetako moduaren artean dagoen distantziaz dugun ezagutza ere.

3.- Konklusio propioak eta lan-plangintza

Laneko istripuaren inguruan Sail Sindikalak eta Laneko Osasun Idazkaritzak egindako ikerketa autonomoaren emaitzak enpresak, Mutuak eta/edo Kanpoko Prebentzio Zerbitzuak egindakoen emaitzekin eta Administrazio Publikoen ikerketaren emaitzekin alderatzeak konklusio propioak ateratzea ahalbidetu behar digu, istripua nola gertatu zen eta haren arrazoiak zein izan diren jakiteko.

Aurrekoaz gain, **konklusio horiek neurri prebentiboak definitzeko balio behar dute**, bai istripua berriz gertatzeko arriskua ezabatzeko eta bai detektatu diren eta beste istripu batzuk sor ditzaketen zirkunstantziak zuzentzeko.

Zalantzarik gabe, neurri eta zuzenketa batzuk berehala gauzatu beharko dira; istripuen beste arrazoi batzuk, berriz –adibidez: agintzeko modu diktatorialak, kontratazio ezegonkorak (aldi baterakoak, ABLEen bidezkoak, eta abar)-, haien kontra borrokatzeko estrategia sindikala planteatzera eraman behar gaituzte. Alde horretatik, Laneko Osasunaren eremuko negoziazio kolektibo espezifikoa tresna baliagarria izan behar zaigu enpresako segurtasuna eta osasuna hobetzen dituzten errebindikazioak sartzeko, ikuspegi prebentibotik planteatuta.

Sail sindikalaren eginkizuna funtsezkoa da horrelakoetan ere; izan ere, bertan egingo dugu esku-hartzerako plangintza, lehentasunak eta xedeak zehaztuko digu, eta xede horiek lortzeko estrategiak definituko ditugu; horretarako, lehenengo urratsa gure konklusioak kolektibizatzea eta gainerako langileengana zuzentzea izango da.

4.- Enpresak, mutuak/spak, administrazio publikoek egindako ikerketan definitutako neurri prebentiboak noraino betetzen diren aztertzea (jarraipena egitea).

Enpresak, Mutuak/SPAk edo Administrazio Publikoek laneko istripuaren inguruan egiten duten ikerketak neurri prebentibo batzuk definitu behar ditu, eta gure esku-hartze sindikala neurri horiek betearaztera zuzendu behar da.

Protokoloa

Protokoloa

Horretarako, gainerako prebentzio-ordezkariak, Segurtasun eta Osasun Batzordeko kideak eta ordezkari-argano unitarioak inplikatu behar ditugu.

Neuri prebentiboak abiatzeko eskaria eta horren jarraipena baliagarria izan behar zaizkigu laneko osasunari buruz geuk dugun lan-plangintza langileen kolektiboaren aurrean eztabaidatzen hasteko.

Azken batean, laneko osasunaren aldeko borroka kolektibizazioa behar du, eta, hortaz, guztion parte-hartzea.



Eranskinak

Eranskina: ekintza laburpena

I. Lehen fasea

- 1.- Kaltetutako pertsonen laguntzea.
- 2.- Honako hau eragozteak:

a).- Kalte gehiago gertatzea.
b) Gabeziak (arauak ez betetzearen ondorioz sortutako gabeziak) eta prebentzioaren akatsak itxuraldatzeko edo zuzentzeko ahaleginak. Ahalegin horien xedea gabeziak eta akatsak ezkutatzea da, Teknikariak edo Lan-ikuskaritza haietaz konturatu ez daitezen.

3.- Istripuan kaltetutako pertsonak **KONTRATA/AZPIKONTRATA/ABLE** bateko langileak badira, haien ordezkariak aurkitu behar ditugu, edota -ordezkaririk ez badute- haien lankideak; horrela-koetan, are beharrezkoagoa da pertsona horiei **LAGUNTZA EMATEA** haien ekintzetan.

4.- Gertatutakoa **JAKINARAZTEA**, Lan-agintaritzari, **INSLri**, **OSALANi**, Lan-ikuskaritzari, **112 Emergentzien Zerbitzuari**.

5.- Gertatutakoa **eskualdeko LAB sindikatuari** ahalik eta arinen **JAKINARAZTEA**, berak lagundu ahal izan diezazuen enpresaren barnean eta kanpoan.

6.- Enpresako ordezkariak sindikala **BILTZEA**, eman beharreko urratsak erabakitzeko:

- Enpresako zuzendaritzarekin biltzea.
- Plantillako batzarra.
- Lanuztea.
- Gertatutakoa salatzeke kontzentrazioa, eta abar.

7.- **MOBILIZAZIOAK**, LAB Sindikatuak ELA, ESK eta STEE-EILAS sindikatuarekin sinatutako jardun-hitzarmenaren arabera:

- Istripu larriak eta heriotza-istripuak publikoki salatzea.

- **24 ORDUKO LANUZTEA egitea heriotza-istripua izan duten enpresetan**. Biktima kontrata/azpi-kontrata/ABLE bateko langilea izanez gero, lanuztea enpresa horietara ere eraman behar dugu. Istripu larrien kasuen ere, lanuzte bat egiteko aukera eta haren iraupena baloratu behar dira.

Protokoloa

Protokoloa

- **KONTZENTRAZIOA**, heriotza-istripua gertatu den lekuan edo eskualdeko leku esanguratsu batean.

II.-Bigarren fasea

KANPO EKINTZAK

Bide administratiboa hastea:

EAEEn:

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA ORDEZKARITZAN idazki bat aurkeztea, berak txostenak eska diezazkien:



24

Nafarroan:

LAN IKUSKARITZAN idazki bat aurkeztea, haren txosten propioa eta INSLrena eskatuz.

II.- BARNE EKINTZAK

1. **ISTRIPUAREN IKERKETA AUTONOMOA, SAIL SINDIKALEAN**, Sindikatuaren Laneko Osasun Idazkaritzaren aholkularitzarekin.
2. ENPRESAK, MUTUAK (EDO KANPOKO PREBENTZIO ZERBITZUAK) ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EGINDAKO IKERKETAREN **EMAITZAK ALDERATZEA**.
3. **KONKLUSIO PROPIOAK ETA LAN PLANGINTZA**.
4. Enpresak, Prebentzio-erakundeak (Mutua/SPA) eta Administrazio Publikoek egindako ikerketan definitutako **NEURRI PREBENTIBOAK NORAINO BETETZEN DIREN AZTERTZEA (JARRAIPENA EGITEA)**.



ERANSKINA: FORMULARIOAK

EANn.

ARABA/BIZKAIA/GIPUZKOAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA ORDEZKARITZARI

(Izena/abizenak),zenbakidun NANaren jabea, LABen ordezkaria (enpresaren helbidea) enpresan, eta (Izena/abizenak), zenbakidun NANaren jabea, LAB Sindikatuaren Laneko Osasun arduradun bezala,helbidearekin (jakinarazpen ondorioetarako).

HAUXE ADIERAZTEN DUTE:

LEHENIK.- Aurtengo ____aren ____ (e)an, (izena eta abizenak) langileak -Gizarte Segurantzaren _____ afiliazio zenbakia duena- laneko istripu bat izan zuen (ordua)(e)tan, (enpresaren izena eta helbidea) enpresarentzat lan egiten ari zenean.

Istripu horren ondorioz, langileak _____ bezala diagnostikatutako lesioak pairatu zituen, _____ egindako parte medikoaren arabera.

BIGARRENIK.- Istripua gertatu zen langilea _____ ari zenean (gertatutakoa modu laburrean deskribatu, batez ere interesgarritzat jotzen ditugun datuak aipatuz).

Aurrean adierazitakoagatik,

HAUXE ESKATZEN DUGU:

Lan-agintaritzak dagozkien txostenak eska diezazkiela Osalari eta Lan-ikuskaritzari, planteatutako neurri prebentiboekin batera, eta idazki hau sinatzen duten arduradun sindikalei eman diezazkietela.

(herria)(e)n, (data)(e)an.

(sinadurak)

Protokoloa

Protokoloa

NAFARROAN

LAN-IKUSKARITZARI

(Izena/abizenak),zenbakidun NANaren jabea, LABen ordezkaria (enpresaren helbidea) enpresan, eta (Izena/abizenak),zenbakidun NANaren jabea, LAB Sindikatuaren Laneko Osasun arduradun bezala,helbidearekin (jakinarazpen ondorioetarako).

Idazki honen bidez **LANEKO SEGURITASUN ETA OSASUNARI BURUZKO SALAKETA** jartzen dute _____ enpresaren kontra -Enpresaren helbidea (jakinarazpenetarako): _____-.

Salaketaren oinarria:

LEHENIK.- Aurtengo ____aren ____ (e)an, (izena eta abizenak) langileak -Gizarte Segurantzaren _____ afiliazio zenbakia duena- laneko istripu bat izan zuen (ordua)(e)tan, (enpresaren izena eta helbidea) enpresarentzat lan egiten ari zenean.

26

Istripu horren ondorioz, langileak _____ bezala diagnostikatutako lesioak pairatu zituen, _____ egindako parte medikoaren arabera.

BIGARENIK.- Istripua gertatu zen langilea _____ ari zenean (gertatutakoa modu laburrean deskribatu, batez ere interesgarritzat jotzen ditugun datuak aipatuz).

Aurrean adierazitakoagatik,

Esku har dezan ESKATZEN DIOGU LAN-IKUSKARITZARI, haren esku dauden funtzioen bidez laneko istripuaren arrazoiei buruzko ikerketa has dezan, baita gertatutakoaren erantzukizunak zehaztu eta hartu beharreko neurri prebentiboak definitu ditzan ere.

Iruñean,(e)koaren.....(e)an.